



**SABAIA HERRIKO LUDOTEKA
FLORENTZARENEA
PLAZA
64780 ORTZAIZE**

Ortzaizeko Herriko etxeko telefono zenbakia : 05.59.37.74.62

BARNE ARAUDIA

Sabaia ludoteka deneri idekia den joko prestatze zerbitzua da.

IDEKITZE EGUN ETA ORENAK

- Astezkenetan 10etatik eguerdira
- Larunbatetan 10etatik eguerdira

LUDOTEKAREN URTEKO HESTE ALDIAK

- Buruileko lehen astea
- Abendoko azken hamabostaldia

KIDETZEA

1. Artikulua : Kidetze kondizioak

Ludotekako zerbitzuetaz baliatu nahi duen pertsona bakotzak kidetzu behar du. Izena emateko, behar duzue :

- zuen nortasun agiriaren eta bizileku agiriaren kopiak ekarri
- izen emate fitxa bete
- barne araudia izenpetu
- urteko kidetze saria pagatu Altxor Publikoaren izenean : 20€koa da familiaka eta 25€koa elkarte edo elkargoendako. Errezibo bat emana izanen zaizue.

Kidetzea berritzen ahal da, lehen kidetzearen bururapen egunean, urtero.
Haurren izen ematea buraso edo legezko arduradunak egin behar du.

JOKO ARAUAK LUDOTEKAN

Ludoteka jokoaren inguruko askatasun espazio bat da, nun helburua den plazer hartzea jostatuz, "joko arau" horiek ez dira eginak zigortzeko, baina kalitatezko zerbitzu baten segurtatzeko.

1. Artikulua : Haurren laguntzea heldu batenganik

Haurrak, horien ardura duen heldu batenganik lagunduak izan behar dute, ludoteka ez delako haurtzaindegi bat.

2. Artikulua : Materialaren errespetua (jokoak eta jostailuak)

Joko eta jostailuak prestatuak dira (kondaketa fitxa, osagarri kopurua zehazten duen zakutxoak, elaztikak kartentzat, joko araudiak). Edozein eztabaida saihesteko, kide bakotzak jokoak begiratu behar du hartu aitzin eta edozein bitxikeria seinatu.

Erabiltzaileei galdegina zaie utzia zaizkien jokoen zaintzea eta itzultzea osagarriak altxaturik hartu dituztenean bezala.

Kideak, beren joko eta jostailuen erabilpenaren arduradunak dira, ludoteka barnean baita kanpoan. Buraso edo laguntzen duten helduek egiaztatu behar dute jokoak haurraren adinarentzat egokia dela eta bere erabilpena zaintzen dute.

Ludotekak ukatzen du joko edo jostailu baten erabilpenean gertatu istripuaren ardura eta orotarazten du kideei, haur gazteenendako, jokoak beren begipean bakarrik erabiliak izan behar direla.

Galtze, joko andeatze kasuetan edo jokoak ez bada osorik itzulia, erabiltzearen ardura da horren ordezkatzeko edo ordaintzea.

3. Artikulua : Besteen eta joko espazioaren errespetua

Ludoteka espazio kolektiboa da nun bakotxa engaiatzen den bestearen jokoaren errespetatzen.

Zuendako prestatu joko espazioa garbia da (milesker ez jatea edo edatea) eta joko eta jostailu bilduma motaka sailkatua da. Sailkapen horren errespetatzea eta jokoak erabili ondoan bere lekuan altxatzea galdegina zaizue.

Bakotxa bere jabetasun pertsonalen arduraduna da.

Erretzea debekatua da.

Animale, haur karrosa, trotineta eta irristailuak ez dira onartuak.

Araudi honen errespetu faltak, ludotekatik, epe bateko edo betiko kanporaketa ondorioztat ukaiten ahal du.

ETXERAKO JOKOEN PRESTATZE ZERBITZUA

4. Artikulua : Prestatze kondizioak

- joko bat pertsonaka

(Notatzekoa : familiak gehienez 3 joko har ditzake edo 6 joko elkargo eta elkarreentzat)

- Prestatze epea : gehienez 3 aste

Prestatze epearen luzatzea posible da galdea eginez eta jokoak ez bada erreserbatua.

- Jokoaren itzultzea ludotekara

Erabiltzaile bakotxak egiaztatu behar du bere etxean joko osorik dela (kondaketa fitxa begiratu), garbia dela eta egoera onean dela, ludotekara itzuli aitzin.

Euria balitz, jokoaren babesteko, plastikozko zaku baten erabiltzea eskertzen zaituztegu.

Jokoa harrera bulegora itzulia da, egiaztatua izan dadin.

KASU : berantarekin, andeaturik edo ez osorik itzuli jokoak behin baino gehiagotan, prestatze zerbitzuaren gelditze bat ukanen du ondorioztat.

Prestatze zerbitzua gelditzen da ludotekaren hestea baino 15 minutu lehenago.

JOKO LIBRE ZERBITZUA LEKUAN BEREAN

5. Artikulua : “Joko librea lekuan berean” zerbitzua

Kideak, lekuan berean jostatzera jin ditaizke beren hurrekin, astezken eta larunbat goizetan, 10etatik eguerdi laurden gutti arte.

Zerbitzu hori eguerdi laurden guttitan hesten da, bakotxak altxa ditzan erabili jokoak. Haur eta laguntzaileek behar dituzte erabili dituzten joko eta jostailuak altxatu.

Lekuan bereko joko libre kondizioak hauek dira :

Espazio eta sekuritate arrazoinentzat, ludotekan 10 pertsona onartuak dira gehienez lekuko joko librearentzat (heldu eta haurrak barne). Lekuko arduradunak pertsona batzuen ez onartzeko eskubidea du, sobera jende baldin bada.

Herriko etxearen edo lekuko prentsaren publikazio kari, posible da zu edo zure haurrak argazkitan hartuak izan daitezen. Ez baduzu onartzen, adierazten ahal duzu izen emaite fitxan.

6. Artikulua :

Ludotekan sartzen den pertsona bakotxa engaiatzen da araudi honen errespetatzera eta izenpetzera.

ORTZAIZEn egina, 2021/08/03an,

Auzapeza,
Jean Marc Oçafrain

Eguna :
Kidearen izenpedura :